



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## **UDALAREN OSOKO BILKURA** **2008ko uztailaren 2ko aparteko eta premiazko bilera**

### **BERTARATU DIRENAK:**

#### **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

#### **ZINEGOTZIAK**

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CUIEL jn.  
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.  
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.  
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.  
EAJ-PNV.- M<sup>o</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ and.  
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.  
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.  
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABAETA jn.  
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.  
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.  
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.  
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.  
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.  
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.  
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.  
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.  
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.  
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

#### **EZ DIRA BERTARATU:**

PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.  
EB-B.- DANIEL HERRERA TORRECILLA jn.

#### **EUSKARA ITZULTZAILEA**

IDOIA NOBLE and.

#### **KONTU-HARTZAILEA**

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

#### **BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA**

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta zortziko uztailaren biko arratsaldeko zazpiak eta hamar direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da aparteko eta premiazko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintzaz zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die bileran parte hartzeko deia, hori guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1.b) artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 79. artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, aparteko eta premiazko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

**1.- OSOKO BILKURAREN ERABAKIA DEIALDIAREN PREMIARI BURUZ:** Aparteko eta premiazko bilera hau Alkatetzaren 152/02 Dekretuaren bidez deitu ondoren, Toki Araubidearen gaineko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.b) artikulua eta Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onetsi zuen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuaren 79. artikulua aintzat hartuta, gai-zerrendako lehenengo puntuaren deialdiaren premiari buruz osoko bilkurak hartutako erabakia agertu behar da.

Hortaz, alkate-udalburuak aparteko bilera honen premia berrets dezan aurkeztu dio osoko bilkurari.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak aho batez erabaki du deialdiaren premia onestea.

**2.- BEHIN BETIKO ONESTEA JARDUEREN MEMORIA ETA EKONOMIA ZEIN FINANTZA MEMORIA BILTZEN DITUEN BIDERAGARRITASUN-PROIEKTUA, LEIOA KIROLAK S.A.U. SOZIETATEAREN PROIEKTU ARAUTZAILEA ETA ESTATUTUAK, ETA MERKATARITZA-SOZIETATE HORREN ERAKETA BAITA ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN OSAERA ERE:** Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2008ko uztailaren 1eko 123. zenbakidun irizpenaren berri eman da. Hona hemen irizpenak hitzez hitz dioena:

### **A.- AURREKARIAK.**

Aurrekari garrantzitsuak osoko bilkurak 2008ko otsailaren 28an eta 2008ko maiatzaren 19an hartutako erabakiak dira:

### **2008ko OTSAILAREN 28ko ERABAKIA**

**PINOSOLO KIROLDEGIA ERAIKITZEKO ETA ONDOREN KUDEATZEKO UDAL MERKATARITZA-SOZIETATEA ERATZEARI BURUZKO ETA DAGOKION MEMORIA IDAZTEKO AZTERKETA-BATZORDEA IZENDATZEARI BURUZKO ESPEDIENTEA HASIERAN ONESTEA.**- Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko otsailaren 19ko 92. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2008ko otsailaren 12an hartu zuen 18. irizpenak honakoa dio:

**EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak buruak,** gaur egun Leioa udalerrian Udalak erabiltzaileei Sakoneta Udal Kiroldegiaren zein udaleko bestelako kirol instalazioen bidez kirol zerbitzuak ematen dizkiela esan du. Honen bidez, Leioako Udalak gaur egun eskaintzen duen kirol eta kiroldegien eskaintza zabaltzea proposatu da, udalerrian kiroldegi berria eraikiz eta ondoren hori ustiatuz.

Helburu hori lortzeko, kapital publikoko merkataritza-sozietate bat eratzea aurreikusi da; Leioako Udalak sozietate horren % 100eko partaidetza izango luke.

Udal sozietate hori Pinosolo kiroldegia eraikitzeaz zein hori ondoren kudeatzeaz arduratuko litzateke.

Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, udalek ahalmena daukate bizilagunen beharrian eta asmoak betetzen laguntzen duten mota guztietako jarduerak sustatzeko. Halaber, nolahi ere kirol jardueren arloan eskumenak burutuko dituela adierazi du, 20.000 biztanletik gora izateagatik udalaren derrigorrezko zerbitzutat jotzen baita.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

85. artikulua honakoa xedatzen du: "Toki-eskumeneko zerbitzu publikoak era hauetakoren batez kudeatu ahal izango dira: d) Tokiko merkataritza-sozietate baten bidez, bere sozietatearen kapitala oso-osorik toki-erakundearena edo toki-erakundearen ente publikoren batena bada". 85. ter artikulua, berriz, hauxe dio: "2. Erantzukizun mugatuko merkataritza-sozietateen eratakoren bat hartu behar du sozietateak"; ondore horretarako, 86. artikulua hurrengo ezartzen du: "1.-Toki-erakundeek, neurria komenigarria eta egokia dela egiaztatzeko espedientearen bidez, jarduera ekonomikoak egiteko ekimen publikoaz balia daitezke".

Tokiko merkataritza-sozietatearen bidez burutu nahi den jarduera onura publikoko jardueratzat jo da eta bat dator indarreko legedian xedatutakoarekin.

Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testuategina onetsi zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuko 97. eta 103. artikulua aztertu dira.

**Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** honako irizpena eman du:

1.- Leioa udalerrian kirol jarduerak eta instalazioak burutzeko udaleko merkataritza-sozietatea eratzeko administrazio espedienteak hasiko da.

2.- Azterketa-batzordea eratuko da, ondoko kide hauek izango dituen:

- Iñaki Goikoetxea Gordo jn., EAJ-PNVkoa
- M<sup>a</sup> Carmen Urbieto González and., EAJ-PNVkoa
- Beatriz Resa Bardeci and., EAJ-PNVkoa
- Jon Loizaga Cayero jn., EAJ-PNVkoa
- Alfonso López Arevalillo jn., PSE-EEkoa
- Luis M<sup>a</sup> Pérez Pérez jn., PSE-EEkoa
- Juan Carlos Martínez Llamazares jn., PSE-EEkoa.
- Arturo Aldecoa Ruiz jn., PPkoa
- Daniel Herrera Torrecilla jn., EBkoa
- Zubizarreta Consulting, S.L. merkataritza-erakundea
- Luis Angel Gómez Alonso jn., Sakoneta kiroldegiko zuzendaria.
- Eider Sarria Gutiérrez and., Leioako Udaleko kontu-hartzailea.

Batzordeko burutza Eneko Arruebarrena Elizondo alkate-udalburuari edo horrek eskuordetutako zinegotziari dagokio; idazkaritza, berriz, Udalbatzako idazkari nagusiari.

Azterketa-batzorde horrek jarduera ekonomikoaren alde sozial, juridiko, tekniko eta finantzarioari eta kudeatzeko moduari buruzko memoria egin beharko du, baita Estatutuen proposamena ere. Hori guztia Udalbatzari bidali beharko dio, onetsi dezan.

**TOKIKO GOBERNU BATZARRA** aipatutako proposamenaren alde agertu da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamabost boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PP taldeko hiru zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

zinegotzienak; sei abstentzio ere egon dira, PSE-EEko sei zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren** aldeko botoaz **erabaki du** Leioa udalerrian kirol jarduerak eta instalazioak burutzeko udaleko merkataritza-sozietatea eratzeko administrazio espedientea hastea eta proposamenean aipatutako kideek osatuko duten eta, jarduera ekonomikoaren alde sozial, juridiko, tekniko eta finantzarioari eta kudeatzeko moduari buruzko memoria ez ezik, estatutuen proposamena ere egingo duen azterketa-batzordea eratuta. Hori guztia Udalbatzari bidali beharko dio, onetsi dezan.

### **2008ko MAIATZAREN 19ko ERABAKIA**

**UDAL SOZIEATE PUBLIKOA, PINOSOLON KIROLDEGIA ERAIKI ETA ONDOREN USTIATZEKO, ETA ESTATUTUEN PROIEKTUA:** Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2008ko maiatzaren 13ko 67. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalaren osoko bilkurak 2008ko otsailaren 28an hartutako erabakiaren bidez, Pinosolo kiroldegia eraikitzeke eta ondoren kudeatzeko udal merkataritza-sozietatea eratzeari buruzko eta dagokion memoria idazteko azterketa-batzordea izendatzeari buruzko espedientea hasieran onestea erabaki zen.

Horren ondorioz, Zubizarreta Consulting S.L. enpresak egindako jarduera ekonomikoaren alde sozial, juridiko, tekniko eta finantzarioari eta kudeatzeko moduaren zehaztapenari buruzko memoriaren berri eman zen. Horrek sozietatearen estatutuen proiektua ere barne hartzen du.

Luze eztabaidatu zen, aldeek beren botoaren arrazoia azal zezaten.

**Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** gaia bozkatu eta honakoa izan zen emaitza: aldeko botoak: EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jauna, Batzorde honetako burua, EAJ-PNVko M<sup>a</sup> Carmen Urbieta González andrea, Beatriz Resa Bardeci andrea eta Jon Loizaga Cayero jauna, eta EB-Berdeak-eko Daniel Herrera Torrecilla jauna. Abstentzioak: PSE-EEko Luis M<sup>a</sup> Pérez Pérez jauna, Alfonso López Arevalillo jauna eta Juan Carlos Martínez Llamazares jauna, eta PPko Arturo Aldecoa Ruiz jauna. Horrenbestez aldeko irizpena eman zion honakoari:

1. Onetsi egingo da Pinosolo kiroldegia kudeatuko duen udal sozietate publikoa sortzeko egokitasun eta aukerari buruzko memoria.
2. Onetsi egingo dira LEIOA KIROLAK S.A.U. udal sozietate publikoa eraenduko duten estatutuak.
3. Onesteko erabaki hau jendaurrean azalduko da egutegiko 30 eguneko epean. Epe horretan alegazio edota oharra aurkeztu ahal izango dira, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onetsi zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 97. artikuluan azaldutakoaren arabera.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** aurretik idatzi den irizpena **onestea**. Horren ondorioz,

1. Onetsi egingo da Pinosolo kiroldegia kudeatuko duen udal sozietate publikoa sortzeko egokitasun eta aukerari buruzko memoria.
2. Onetsi egingo dira LEIOA KIROLAK S.A.U. udal sozietate publikoa eraenduko duten estatutuak, espedientean azaltzen diren bezala.
3. Onesteko erabaki hau jendaurrean azalduko da egutegiko 30 eguneko epean. Epe horretan alegazio edota oharrak aurkeztu ahal izango dira, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onetsi zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuaren 97. artikuluan azaldutakoaren arabera.

Iragarkia Udalbatzaren ediktu-oholean argitaratu zenetik hasita, jendaurrean azaltzeko epea 2008ko ekainaren 20an bukatu zen, eta epe horretan ez da alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztu. Bestalde, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ere iragarkia argitaratu zen.

## **B.- ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN OSAERA ETA AHALMENAK ESKUORDETZEA**

1.-Onetsiko da ondoren agertzen diren Udalbatzako kideak eta teknikariak Administrazio Kontseiluko kide izendatzea:

### **Sozietateko burua:**

- Leioako Udaleko alkatea, Eneko Arruabarrena Elizondo jn.
- Ordezkoa: Jon Loizaga Cayero jn.

### **Sozietateko buruordea:**

- Kirolen Informazio Batzordeko burua: Ainara Urbieta Bergara and.
- Ordezkoa: Iñaki Goikoetxea Gordo jn.

### **Kidea:**

- Eusko Alderdi Jeltzaleko (EAJ) zinegotzia: Jesús Bilbao Curiel jn.
- Ordezkoa: M<sup>a</sup> Carmen Urbieta González and.

### **Kidea:**

- Ezker Batua-Berdeak (EB) alderdiko zinegotzia: Isabel García García and.
- Ordezkoa: Daniel Herrera Torrecilla jn. edo haren ordezkoa.

### **Kidea:**

- Alderdi Popularra (PP) taldeko zinegotzia: Xabier Olabarrieta Arnaiz jn.
- Ordezkoa: Fernando Pinto Palacios jn.

### **Kidea:**



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- Alderdi Sozialistako (PSE-EE) zinegotzia: Juan Carlos Martínez Llamazares jn.
- Ordezkoa: Alfonso López Arevalillo jn.

**Kidea:**

- Behin-behineko idazkaria eta AOT: Javier Bolinaga Lekue jn.

**Kidea:**

- Kirol Arloko zuzendaria: Luis Ángel Gómez Alonso jn.

**Kidea:**

- Fondoen kontu-hartzailea: Eider Sarriá Gutierrez and.

2.- Eneko Arruebarrena Elizondo alkate-udalburua edo hark eskuordetzen duen zinegotzia ahaldunduko da, udalaren izenean eta haren ordezkari gisa jardunez, Sozietatea eratzeko beharrezko agiri publiko zein pribatuak sina ditzan.

#### **C.- EGOITZA SOZIALA**

Sozietatearen egoitza sozialaren helbidea hauxe izango da: Elexalde kalea 1, Leioa.

#### **D.- BIDERAGARRITASUN-PROIEKTUA ETA PROIEKTU ARAUTZAILEA**

Behin betiko onetsiko da "LEIOA KIROLAK, S.A.U" udal sozietate publikoaren bideragarritasun-proiektua eta proiektu arautzailea. Arlo juridikoari dagokionez, erantzukizun mugatuko merkataritza-sozietatea edo sozietate anonimoa izango da. Aipatutako proiektuak espedientean sartu dira.

#### **E.- ESTATUTUAK**

Behin betiko onetsi dira merkataritza-sozietatea eraenduko duten estatutuak. Horien testu zehatza espedientean agertzen da.

#### **F.- MERKATARITZA-SOZIEATEAREN ERAKETA**

Onetsiko da "LEIOA KIROLAK, S.A.U" merkataritza-etxea eratzea eta hori eskritura publiko batean formalizatzea.

#### **G.- SOZIEATEA ERATZEAREN KAPITAL SOZIALA ORDAINTZEA**

*Onetsiko da sozietatea eratzeko kapital sozialaren diru kontrabaliu gisa 60.101,21 €ko zenbatekoa ordaintzea eta sozietatearen akzio guztiak harpidetuko dira.*

#### **H.- ONDORENGO TRAMITEAK**

Aurreko puntuak onesteko erabakia hartu eta gero, egin beharreko jarduera edo tramite garrantzitsuenak honakoak izango dira:

- Bankuko kontu korrante bat sortzea "LEIOA KIROLAK, S.A.U." sozietatearen izenean baita 60.101,21 €ko diru-sarrerara egitea ere, eta ordainketa egin izanaren ziurtagiria banku-erakundeari eskatzea, sozietatea eratzearen ondoretarako.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- Sozietatearen eraketa agiri publikoan formalizatzea, notarioaren aurrean
- Merkataritza Erregistroan inskribatzea.
- Zergadun gisa alta ematea Bizkaiko Foru Ogasuneko zerga-erroldean.

**Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** lehen adierazitako atal guzti-guztiak (Atik Hra bitartekoak eta "LEIOA KIROLAK S.A.U." sozietatea eratzeko espedienteak behar dituen tramite guztiak bildu dituztenak), irizpenean xedatu bezala, onestea eta udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bilerako gai-zerrendan hura onesteari buruzko aztergaia gehitzea egokia dela adierazi du.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** behin betiko **onestea** jardueren memoria eta ekonomia zein finantza memoria biltzen dituen bideragarritasun-proiektua, Leioa Kiroalak S.A.U. sozietatearen proiektu arautzailea eta estatutuak, eta merkataritza-sozietate horren eraketa baita Administrazio Kontseiluaren osaera ere, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean xedatu bezala; halaber, erabaki honetan lehen adierazi diren atal guztiak.

Eta arratsaldeko zazpiak eta hogeitazirenean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.  
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,